

8. IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA

Enara Perez Noriega ama eskolako errientsa da. Masterrean ikasia bizitzako arlo guzietan erabiltzen saiatzen da.

Enarari egin elkarrizketa irakurri ondoan, baieztapenak zuzen ala oker diren adieraz ezazu. Oker direlarik, zuzen itzazu.

1. Aurkezten ahal duzu zure burua?

Enara deitzen naiz eta 26 urte ditut. 18 urte bete arte Hendaian bizi nintzen. Donostian Haur Hezkuntzako lizentzia lortu ondoren, gizon eta emazteen arteko berdintasunaren inguruko master bat burutu nuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Orain, ama eskolako irakaslea naiz.



2. Aurkezten ahal duzu egin duzun masterra?

Burututako masterrak sexuen arteko berdintasunaren teknikari izateko balio du. Izan ere, masterrean emazteen egoera, historian zehar, jendarteko arlo guztietan aztertzen da. Ez hori bakarrik, baizik eta eremu guzietan (administrazioan, politikan, zuzenbidean, hezkuntzan, etab...) zer eragin duen sexuen arteko desberdintasunak irakasten da. Emazteen tokia munduan eta emazte izateagatik sufritzen ditugun indarkeriak (bikotean, ekonomikoa, sexuala, etab...) irakasten dira.

3. Nola erabil dezakezu ikasi duzuna hezkuntza arloan?

Hori ahalik eta hobeto azaldu ahal izateko, adibide batzuk jarriko ditut. Nire eskolan, haurrak libreki ibiltzen dira txoko desberdinetan (eraikuntza txokoa, arte txokoa, idazketa/matematika txokoa eta jolas sinbolikoaren txokoa). Beti adi nago neskak txoko guzietatik pasatzeko. Izan ere, ez baduzu arretarik jartzen, neskatilek egun osoa pasatzen dute arte txokoan marrazten eta ez dira idazketa, matematika edo eraikuntza txokoetara joaten. Bestalde, neska eta mutilen arteko harremanak osasuntsuak izatea eta berdintasunean oinarritzea zaintzen dut. Jolas garaian, mutilek motoak hartzen dituzte, neskei aukerarik eman gabe. Motoen erabilera parekoa izatea behatzen dut eta bestela, esku-hartzen dut horrela izateko. Ikerketa batzuek frogatu dute irakasleek arreta gehiago ematen dietela mutilei neskei baino, beraz, beti saiatzen naiz arreta denbora bera eskaintzen biei. Ez hori bakarrik, baizik eta ikerketek ere frogatu zuten errieta gehiago egiten zaiela neskei mutilei baino, jarrera bera erakusten dutenean. Beraz, beti nire jarrera bera izatea zaintzen dut.

4. Zure ustez zer da feminismoa?

Nesken askatasuna eta gizonekiko berdintasuna lortu nahi duen mugimendu sozial eta politikoa da.

5. Zer dira mikromatxismoak?

Egunero, jendeak inkontzienteki burutzen dituen jarrera batzuk, jendartean onartuta eta naturalizatuta daudenak. Adibidez; emazteen iritzia gutxietsi; "txiste" matxistak kontatu; koloreak sexu desberdinekin erlazionatu (arrosa nesKentzat, urdina mutilentzat); aiten rola goraipatu eta amena gutxitu; norbaitek zer bait gaizki egiten duenean, esatea "neskek bezala egiten duzu", etab...

Ezingo nituzke bizitza bakar batean denak aipatu, egunero, uneoro gertatzen baitira.

6. Zer esango zenieke esaten dutenei: “ez naiz ez matxista ez feminista”?

Esango nieke ez dutela ezer ulertu. Ez bazara bata, bestea zara. Garrantzitsua da errealtateaz eta egoeraz kontzientziaztea eta desberdintasunaren aurrean posizionatzea. Mundua ez da hobetuko edo aldatuko, bestela. Eta jendarteari, eta batez ere emazteei zor dieguna da, gutxienez.

7. Zure ustez, zer dira berdintasunaren alde egin diren aldaketa nabarmenak?

Mugimendu Feminista Olympe de Gouges-en hiltzearekin hasi zen, 1793an. Hortik aurrera lorpen asko izan ditugu: emazteen parte hartzea politikan (lehen emazteak ezin baitziren ezta bildu ere jendarteari buruzko iritzia emateko).

Ondoren, mugimendu feminista emazteen hezkuntzaren alde borrokatu zen (emazteak ezin baitziren eskolara joan) baita bozkatu ahal izateko (sufragismoaren garaian).

Beranduago, ugalketako eskubideak lortu ziren (abortua, kontrazepzioaren erabilera, etab.). Kanpotik ikusita, pentsa liteke gauza asko aldatu direla baina hainbeste urte, 300 urte hain zuzen ere, pasa dira eta lorpenak ez dira nahikoak. Gauza asko falta dira oraindik egiteko.

8. Zure ustez, zer dira hurrengo urteetarako erronka nagusiak?

Feminismoaren ikuspegitik, ez dago ezer berez “femenino” edo “maskulino” denik. Feminismoak estereotiporik gabeko nortasun eta pertsonak aske bizitzea bilatzen du. Feminismoaren arabera, urdina denentzat da eta arrosa baita ere.

Horretaz aparte, etorkizunari begira, beste erronka garrantzitsu asko ditugu, hala nola emazteen aurkako indarkeria gutxitzea desagertu arte; kristalezko sabaia suntsitzea emazteek lanbide guztietan postu garrantzitsuak eskuratu ahal izateko; emazteen eskubideen errespetatzea. Ikusten ari gara, orain arte lortutako eskubideak ahal bezain laster zalantzan jartzen dituztela. Adibidez, Estatu Batuetako estatu batzuetan abortua ilegalizatzen ari dira.

Beste erronka garrantzitsu batzuk hauek dira: soldata arrakala, heziketa berdintzailea, etab...

Ikusten duzuen moduan, gauza asko falta dira oraindik egiteko, eta munduko emazteen indar eta energia guztia behar dugu. Batez ere, emazte gazteenei eskatuko nieke belaunaldiko erreleboa modu arduratsuan hartzea eta borrokarekin segitzea. Mutilentzat ere eskaera bat daukat: ez izan matxisten konplizeak eta kolaboratu neskekin mundua justuago izateko denontzat. Zuek ere aldaketaren parte zarete eta.

Ikasek egin elkarrizketa

	ZUZEN	OKER
1. Enarak burutu duen masterrean, besteak beste, emazteek sufritzen dituzten bortizkeria aztertzen da.		
2. Enararen ustez garrantzitsua da eskolako neska guziak txoko guztietatik pasatzea.		

3. Enarak dio eskolako mutilak batez ere arte txokora hurbiltzen direla.		
4. Ikerketa batzuen arabera, irakasleek neskei mutilei baino arreta gehiago ematen diete.		
5. Mikromatxismoak oso errotuak dira jendartean.		
6. Enararen ustez, arrosa kolorea neskendako da.		
7. Mugimendu feministak ukan zuen lehen erronka emazteen heziketarena izan zen.		
8. Enarak dio feminismoaren helburuetarik bat dela haur guziak sexu-estereotiporik gabeko ingurumenean handitzea.		
9. Enarak dio lehenagotik erdietsi diren eskubideak behin betiko finkatu direla eta ezin direla zalantzan eman.		
10. Enararen ustez mutilek ez dute zereginik sexuen arteko berdintasunaren arloan.		